

JELkumeak



AHOZTAR ZELAIETA
KAZETARIA

Joseba Diez Antxustegi EAJk Eusko Legebiltzarrean duen bozeramaile berriaren iritziz, Imanol Pradales lehendakariak "esperientzia handiko emakumez eta gizonez osatutako gobernu osatu du, sektore profesionaletan errespetatuak eta Euskadirekin konpromisoa hartu dutenak". 2015. urteko eslogan bat errepikatu du, Andoni Ortuzar alderdiko presidentek adierazi baitzuen ate birakari jelkideek "zuzen funtzionatzen dutela, norabide egokian"; izan ere, "lehenik eta behin, jendeak profil profesionala du, gaitasun egiaztatua du, bere lanbidean eta zeregin profesionaletan bere balioa erakusten du, eta, gero, pertsona horietako askok konpromiso publiko eta instituzionalak hartu dituzte".

Ortuzarren estrategia 2013ko udal hauteskundeetan hasi zen, "Jóvenes Burukides Bizkainos" (JoBuBi) taldeak bultzatuta EAJren udal kudeaketaren inguruko koadroak berritzen saiatzen ari zirenean. Alderdiko "JaBuGo"-ek eta "Michelines"-ek urte gehiegi zeramatza ten administrazio publikoarekin lotuta, eta, beraz, enpresa pribatuetan karrerak zituzten kudeatzaile berrien irudia saldu nahi izan zen, nahiz eta gehienak administrazio publikoko kontratistak ziren.

Azken hauteskundeetan EAJk izandako emaitza negargarriak direla eta, eta

azken hautagaitzak feminismoz moztrotuz espero ziren emaitzak lortu gabe, alderdiak presaka jo du promesa gazteen entxufismora. Baina jeltzale asko jada nazkatuta daude Andoni Ortuzar JoBuBien liderraren autokritika faltaz, Arratiako klanaren apoltronamenduaz ere bai (Aitor Esteban eta Itxaso Atutxa), eta are gehiago alderdiko azken JaBuGo batzuk birkokatzeke moduz (Josu Erkoreka eta Iñigo Iturrate).

Alde batetik, Michelinen birkokatze horiei dagokionez, Ager Izagirre Herri Administrazio eta Erakunde Harremanetarako diputatuak uste du kargu publikoak izendatzerakoan "ideologia kontuan hartzen dela" eta "konfiantzazkoak" behar dutela izan. Bestalde, EAJtik banandutako alderdiak, Eusko Alkartasunak, EAJren eremuko gazte-elkarteetan jarri du arreta. Elkarte horien finantzaketa, dirulaguntzen eta kontratu publikoen bidez, Kontuen Auzitegiaren lupatik kanpo dago, eta elkarte horietako militante gazteenak kargu publiko bilakatzen ari dira.

Kontratazio publikoaren arloan, badi-rudi ezer ez dela aldatuko. Pribatizatutako zerbitzu publikoen lizitazioetan parte hartzeko enpresa pribatuak gonbidatzeko orduan, Itxaso Atutxaren kontsigna argia da: "Alderdiaren konfiantzazko hiru enpresa izan behar dira". ●

Estres test



ITXARO BORDA
IDAZLEA

Lugarrenez altxatu da eguzkia Baionako besten eremu setiatuan eta uste dut, septentrioko Euskal Herri honetan, hatsa hobekiago hartzen dugula, batez ere gure hiru diputatuak Fronte Herritar Berrikoak direlako eta olde beltz-kakia hirugarren postura zokoratu dugulako. Bi gauza, halere: 1. Mamua ez dabil urrun, edonoiz irents eta zirtzika gaitzake; 2. Parisera igortzen ditugun diputatuek, gure zaharrek erraten zuten legez, ez gaitzabela ahantz, trena Akize-ra heldu orduko. Bozka biharamunak batzuetan frustranteak dira, emozionalki bederen.

Hilabete oso bat iragan dugu antsiar loturik. Senar edo bikote-kide bortitzaren antzera, Macron presidente perbertsonarzisismoak bere herritarrei estres test erreal bat jasanarazi die, gorrotoaren alderdiari kontzienteki ateak zabalduz. Oraino ere, gutun bidez, hiritarrei sine-tsarazi nahi die deus ez dela aldatu, ez di-tuela hauteskundeak nehork irabazi, ez behintzat ezkerrek, eta eskuinekoek behar luketela gobernu osatu, beraien artean, 1958ko Konstituzioaren erregelak ukatuz.

Botere zerbait banu, nik, Marine Ton-delier ekologista jarriko nuke lehen ministro. ●